



3 GIZARTEA

Lasarte-Oriak Ahal du-ko Alicia Garcia saritua

Podemosek sustatutako 'Impulsa' ekimenak gizartean eragina duten egitasmoen garapena du helburu. Alicia Garcia "adinekoei konpainia, ez zaude bakarrik" izeneko lana aurkeztu zuen. Adinekoek askotan bizi duten isolamentu egoerari erreparatuz, hauei laguntza eskainiko lieken zerbitzua du oinarri herritarren proposamenak.

5 JAIK

Zabaletako festak giro ezin hobean ospatzen ari dira

Asteartean hasi ziren Zabale-tako festak. Egun hauetan etxeko txikiak ekintzak nagusitu dira. Haurrek eskulana aritzeko aukera izan dute eta besteak beste Teresa sorginaren irudiarekin kamisetak egin ahal izan dituzte. Gaurko sorginaren jaitsierarekin, festak eztanda egingo du. Asteburu osoan zehar hamaika ekintza izango dira festak gozatzeko.



Atzo Askatasunaren parkean egindako prentsaurrekoan aurkeztu zen San Pedro jaien egitaraua. Festetan omenduak izango diren elkarteak ere jakitera eman zituzten, kasu honetan, Ostadar-Saiarre kirol elkarte eta Biyak Bat jubilatuen elkarteak jasoko dute herrian egiten duten lanari aitortza.

Askatasunaren parkean egin zuten udal eta elkarteetako ordezkariak San Pedro jaien aurkezpena. Azken urteetan egin moduan, egitaraua jaietan Blai! prozesutik sortu da. Prozesua urtarrean hasi zen eta dinamika ezberdinen bidez herriko elkarte eta herritarren proposamenak jaso dira, "festen norabide orokorrak nolakoa beharko lukeen zehaztu eta erabakitzeko" aipatu zuen Taxio Arrizabalagak.

Programari dagokionean, "ezaugarri azpimarragarriena herriko elkarten elkarlana eta inplikazioa izan da. Jaien antolaketan aktiboki parte hartzen dute jada herriko eragileek, eta honek gure festak gero eta herrikoia izatera daramatza, antolaketaren eredu zabal eta plurala oinarri". "Azken urteetan parte hartzean egindako lana jada sendotuta dago; Lasarte-Oriak, festa eredu berri baten aldeko hautua egin du" esan zuen Arrizabalagak.

Aurtengoan, guztira, herriko 17 elkarte eta eragilek hartuko dute parte festetan: Sorgin Jaiak, Ttakun Kultur Elkarte, Beltzak Rugby taldea, Aterpea merkatarien elkarte,



Atzo egindako agerraldian elkarteetako kideak eta udal ordezkariak izan ziren.

Intza pilota elkarte, Ostadar-Saiarre kirol elkarte (bolo eta toka sekzioa), Biyak Bat jubilatuen elkarte, Virgen de Guadalupe Extremadurako elkarte, Amaia Gonzalez Caballero dantza eskola, Alboka Abesbatza, Zero Sette akordeoi orkestra, ATLO Danborrada Elkarte, Udal musika eskola, Erketz Euskal Dantza Taldea, Saito Gimnasioa, APG elkarte (patinatzaileak) eta Tiriki-Tarraka.

"Balorazioa beraz, ezin positiboagoa da zentzu horretan. Festak, herritik eta herriarentzat behar dute izan".

Beste urte batez ekintza gehienak kalean izango dira: kale antzerkiak, kaleko musika ikuskizunak, formato ezberdinetako kontzertuak, txarangak egunero, erraldoi eta buruhandien kalejirak...

Aurtengo izen nagusiak Gozategi, Zea Mays, Gatibu eta Ze esateki!, dira, ostiral eta larunbat gauean plazan joko duten taldeak.

Beste hainbat taldek ere

haien ikuskizunak eskainiko dituzte, King Kong boy, Eskean kristo, The Garax, Gabezia, Ibai Berriak, Ezten Giro, Keep diggin, Obito, Parrandarako Horkresta, Bihotzkada, Rok Kam Broom, Kaoba,...

"Lasarte-Oria anitza izanik, festak ere guztionak behar dute izan". Hori dela eta, jatorri ezberdinetako adierazpideak programara batzeko saiakera egin da. Herriko Extremadurako elkarteak, adibidez, bertako zapoak dastatzeko eta doinuez gozatzeko aukera emango du astelehen eguerdian.

Larunbatean Okendon 17:00etan Cadiz aldera salto egiteko aukera izango da, "chirigota"-rekin.

Adin guztientzat

"Festak herritar guztiontzat behar dutela izan ulertuta, aurtengo egitaraua, inoiz baino aberatsagoa eta zabalgogo da, adin multzo ezberdinetako eskaintza bere baitan jasotzen baitu".

Goiz eta arratsaldeak haurrentzako ekintzez osatuta daude (haur parkeak, pailazoak, dantzaldiak, ikuskizunak, buruhandiak,...); jubilatuen eta adinduenek ere festa giroaz gozatzeko aukera izango dute dantzaletan, astelehen arratsaldeko konpartsan, etab. Eta gazteenek ere, elkarteek antolatutako ekintzetan, kaleko ikuskizunetan, larunbat gaueko egitarau oparoan (kontzertuen ostean batukada eta txokolatada),...

Azken urteetan bezala, Udalak herriko elkarte edo kolektiboak omentzea erabaki du, urteetan egin duten lanaren aitortza gisara. Aurtengo Ostadar-Saiarre kirol elkarte eta Biyak Bat jubilatuen elkarte izango dira jaietako pregoiak irakurtzen. Omenaldia ekainaren 29an, 13:00etan Manuel Lekuonan izango da.

Azkenik kartel lehiaketako lan irabazlea ere aurkeztu zuten, Nerea Uralderen lana izan da Gazteria eta Festak batzordean hautatutakoa.

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure prezioetan!

Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria



Foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Basurde burua

Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Neure kabuz



Ane Labaka

Jolasean

Dena jokoan dagoenean jolasten jakin behar da". Horrela hasi nuen igande goizean Zizurkilen Gipuzkoako Txapelketako saioa. Zoritxarrez, jolasetik baino jokatik gehiago zuen hartan jokoak berarekin dakarren itolarria ahaztu eta jolasteko gai izango ote nintzen jakin gabe. Ahots sendoz kantatu nuen lehen agurra. Lujanbiok aurreko ostiraleko "Doinuak lumaz" saioan bete-betea asmatu zuen, ordea; ahots sendoen atzean beti ezkututzen da ahots dardarti bat. Kanpora begira antezten duen ziurtasunetik oso urruti, Aneri ere barrua jaten diote dardarak eta ikarak.

Dardara hauek hirukoiztu egin daitezke. Txapelketak jartzen ditu ordura arte elkarren alde jardundako bertsolariak elkarren aurka, norbere mamuen aurka barneborroka etengabe. Txapelketak bihurtzen ditu urtean zeharreko entzule fidelen belarriak kalkulagailu. Balioa galtzen dute ideia onek eta puntu hunkigarriek, epaileek biko ziztrin batez eskertutako poto eta irristaden neurriko pekatuen mesedetan. Puntuak gora eta puntuak behera. Ertzeko punturaino, batzuetan.

Baina guk, euskaldun petoak izaki, maite dugu lehia. Txapelketa aurreko elkarrizketetan "daukadan onena ematea" eta "neuretik kantatzea" bezalakoekin makillatu ohi ditugu benetan buruan dauzkagun helburu eta amets handiak. Politikoki zuzenak izaten ikasi genuenean utzi genion lehiakorrak ginela publikoki aitortzeari. Gaizki eginda ere mundua bukatzen ez zela kantatu genuen baina pozik gaude munduaren bukaera bizi behar izan ez dugulako. Irailean, beste behin, jokoan daukagunarekin jolasteko aukera izango dugulako.

Zorion agurrak



Iker

Urte bete gehiago daukazu eta ez zara aldatu. Hori liluragarria da, zaren bezalakoa perfektua zarelako. ZORIONAK!



Gorka

Zorionak aitatzxo! Txokolatetzko muxuak! Maite zaitugu, Aiora, Oier eta amatxoren partez.



Elur

Zorionak polita!!!! Asko maite zaitugu!!



Naroa

Zorionak prexioxi zure laugarren urtebetetzean. Muxu pila gurasoen partetik!




Laiene

Zorionakkk bihotza!! lada 6 urte. Asko maite zaitugu!!! Muxuak!!



Ane

Zorionak Ane !!!!. Milla muxu zuretzat denon etxekoan partetik.



Markel

ZORIONAK Markel!!! 9 mila muxu familiaren partetik!!! Gure bizitzako izarririk distiratsuen zara!!!



Maitane

Zorionak sorgiña! 8 muxu erraldoi familiaren partez!!!



Nahia

Zorionak! 12 muxu handi familiaren partetik.

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Salou. Apartamentua alokatzen da 4-6 pertsonentzako. Berritua eta aire egokituarekin. Erdialdean dago eta hondartza gertu du. Bi igerileku erabilgarri. Alokairua 350 eurotik gora astea. 616 14 81 68.

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitu, zaintza egin edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko. Paperak eta erreferentziak ditu. 648 90 67 82.
- Lan bila nabil. Zaharrak edo umeak zaintzen. Interna edo externa moduan. 645 78 72 72.
- Esperientzia eta erreferentziak dituen emakumea eskaintzen da garbiketara lanak, ume edota nagusien zaintzan lan egiteko. 663 99 05 52.

- Etxeko lanak, pertsona nagusiak edo umeak zaintzen interna edo externa lan bila. 600 33 40 21.

- Baxilergoko ikasle euskaldunak, laguntza klaseak emango ditu udan L.H. eta D.B.H.ko ikasleei. 627 64 90 53.

- Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak eta garbiketarako egiteko pertsona eskaintzen da. 648 19 84 56.

Lan-eskaintza

- Ile-apaintzaile bat behar dut lan egiteko Lasarte-Orian. 615 78 11 16 Maite.

Bestelakoak

- Pisu txikia, baju bat ala egongela bat alokatu nahi dut Lasarte-Orian. Ikaslea naiz. 650 50 19 10.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Malen Diez Esteban, maiatzaren 30ean.



Heriotzak

- Angel Sagasti Garcia, ekainaren 3an, 82 urte zituela.
- Benita Aguirre Zeberio, maiatzaren 31ean, 66 urte zituela.
- Juan Morales Lorite, maiatzaren 29an, 95 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 05
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567

Larunbata, 06
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774

Igandea, 07
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774

Astelehena, 08
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567

Astearte, 09
Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9 943 019521

Asteazkena, 10
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652

Osteguna, 11
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kirolegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Muntteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GFako Kultura eta
Euskara Departamendua

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azurmendi, Nerea
Eizaguirre, Jon Altuna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maidor Seguroa,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Pako
Aizpitarte, Edu Galardi

Informazioa:

Xabier Amadoz

GIZARTEA

Lasarte-Oriak Ahal Du-ko Alicia Garcia saritua

'Impulsa' ekimenean aurkeztutako lanagatik

Maiatzaren 21ean Zaragozan burututako kanpaina ekitaldian egin zuten Podemosekoek sari banaketa. 'Impulsa' ekimenak gizartean eragina duten ekimenak sustatzea du helburu. Alicia Garcia aurkeztutakoa "adinekoei konpainia, ez zaude bakarrik" izeneko proposamena da.



Alicia Garcia herritarra Pablo Etxenike Podemoseko kidearekin sari banaketan.

TXINTXARRI

Alicia Garcia Lasarte-Oriak Ahal Du taldearen babesarekin aurkeztu zuen "adinekoei konpainia, ez zaude bakarrik" lana. Estatu mailan Podemos alderdiak maiztzean sustatutako 'Impulsa' egitasmoaren baitan jaso du saria herritarren ekimenak.

Azaldutenez, Impulsa giza-ikuspegia duten proiektu ekintzaileak garatzea zuen helburu. Podemosek diruz lagundu ditu hiru lan onenak, jendearen bozka gehien jaso dituztenak alegia eta horrekin batera, Podemosen Talentu bankua erabiltzeko aukera eskaini die sarituei euren proiektuak kolaboratzaile berriei ezagutzera emateko.

Erkidego mailako 16 egitasmok 1.000 euro jaso dituzte eta 8.000 euro estatu mailako hiru hoberenek. Guztira 50.000 euro banatu dira Podemosen kanpainako diru soberakinetik ateratako

dirua izanik. 150 lan baino gehiago aurkeztu ziren eta bi txandatan bozka eman ahal izan zuten Podemosen izena emandako guztiek.

Saridunak maiatzaren 21ean Zaragozan egin zen ekitaldira gonbidatuak izan ziren, honetan, Pablo Iglesias eta Pablo Etxenike izan zirelarik.

Ez zaude bakarrik

Alicia Garcia egunerokoan adinekoek bakartasunari eta gizarte isolamenduari aurre egin behar diotela konturatu-ta, bere egitasmoan proposatzen du profil ezberdinetako boluntario talde kualifikatua osatzea adinduak laguntzeko. Boluntarioek aurrez formazioa jasoko lukete talde teknikoaren eskutik. Talde teknikoan, gizarte langileak, talde koordinatzaile bat izango lirake besteak beste.

Egitasmoak planteatzen du erakunde bat sortzea pertsona adinduen bizi kalitatea

hobetzeko helburuarekin. Bereziki arreta jarritz, errekurtso mugatuak dituzten adinduengan, bakarrik bizi direnengan edota isolamendu egoeran daudenengan. Boluntario profesional taldeak tekniko ezberdinekin gidatuta lan egingo luke. Erakundeak kudeatuko luke talde tekniko honek ere.

Egitasmoan Alicia Garcia lasarteoriarrak jasotzen ditu zerbait programa, esaterako, bakarrik bizi direnei zuzendutako konpainia egitasmoa, ekintza ezberdinak sustatuko lituzkeena, hala nola, irteerak, hitzaldiak eta azkenik, arazoaren aurrean gizartearen sentsibilizazioa landuko lukeena.

Aipatu behar da, Lasarte-Oriak Ahal Du hautesle taldearen zerrendan hirugarren postuan aurkeztu zela Alicia Garcia eta dena ondo bidean, datozen lau urteetan zinegotzi lanetan jardungo dela herritarra.

Labaka txapelketako hurrengo fasean

Igandean Zizurkilen izan zuten Gipuzkoako bertso txapelketako bigarren sailkapen saioa Ane Labaka herritarra eta honetan ere, berak eskuratu zituen puntu gehien, 309.

Eneritz Artetxe, Xabier Sukia, Gorka Maiz, Eñaut Martikorena eta Asier Sasieta izan zituen lehiakide herritarrak baina 15 puntu atera zizkion bigarrenari.

Unai Muñoak aurreko astean egin bezala, lehenengo itzuli honetako bi saioak irabazi ditu Labakak eta horrela biek matematikoki ziurtatu dute euren lekua hurrengo itzulian. Muñoak 576 puntu



Zizurkilgo saioa ere irabazita hurrengo itzulira pasa da Ane Labaka.

eskuratu ditu eta Labakak berriz, 559.

Izan ere, sailkapeneko lehenengo 30 bertsolariak sailka-

tuko dira irailean berriz martxan jarriko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako.

UDA

Txokotako bilerak gaur

Udako Txokoetan parte hartuko duten haurren gurasoek gaur hitzordu garrantzitsua dute Manuel Lekuonan. HH3-HH4ko umeen gurasoek euskaraz 17:00etan izango dute bilera, jarraian 17:40ean gazteleraz egingo da. HH5-LH2 arteko haurren gurasoen bilera gaur ere izango da 18:20ean euskaraz eta 19:00etan gazteleraz.

Abuztuko txokoetan parte hartuko dutenentzat hitzordua ere gaur izango da 19:40ean. Antolatzaileek dei egiten diete gurasoei bertara daitezzen uztaile zein abuztuko ekintzak eta umeen taldeak zeintzuk diren jakiteko.

IKASTURTEA

Lanbide eskolan izena emateko aukera

Aurrematrikula egiteko aukera dago Usurbilgo Lanbide Eskolan. Gaur izango da azken eguna izen-ematea egiteko. Informazio gehiago behar dutenek zentrotik pasa edota 943 36 46 00 telefonoan eskura dezakete.

GURE ESKU DAGO

Globoan paseoa zozketatzen du Gure Esku Dago taldeak

Datorren ostiralean ekainaren 12rako globo aerostatikoan herritik buelta bat emateko zozketa du martxan Lasarte-Oriako GEDekoek. Dagoeneko txartelak salgai daude euro batean eta ekainaren 7an izango da zozketa 13:00tan. Bertan bi zenbaki saritu aterako dira eta bakoitzak lagun batekin globoan ibiltzeko aukera izango du beraz 4 pertsonak izango dute globoan buelta emateko aukera.

Ekainaren 12an 18:30etik aurrera Tximistarretako plazatik aterako da globoa eta bertan Donostian ekainaren 21ean Lasarte-Oriako tartea betetzeko falta diren oihalak margotuko dira eta txokolatada bat ere izango da.

IKASTAROA

Lehen sorospen ikastaroa

DYAk Usurbilen duen egoitzan ikastaro teoriko-praktiko honekin lehen sorospenen oinarrizko ezagutzak landuko dira. Egunerok aurkitu daitezkeen arrisku egoera nagusiei ekiten ikasiko da bihotz-biriken suspertzea, zauriak, hausturak, erre-durak... eta egoera hauei nola aurre egin eta konpontzen erakutsiko da. Funtsezko eta oso erabilgarriak diren ezagutzak era erraz eta entretenigarrian erakutsiko dira, hezkuntza praktikoekin txandakatuko direnak.

Ekainaren 8tik 19ra izango da ikastaroa 18:00etatik 21:00etara. Ikastaroak 110 euroko kostua du. Izena emateko edo informazio gehiagorako irakaskuntza.eskola@dyagipuzkoa.com helbidean.

TELEBISTA

Bideo grabaketa Zabaletan

Gaur 'Gu ta Gutarrak' ETB1eko saiokoak Zabaletara hurbilduko dira bertan parte hartzen ari den Leire Zubizarretarentzat bideo bat grabatzera. Herritarra finalean da eta ezusteko moduan bideo hau grabatuko dute senide eta lagunak. Hala ere, honetan parte hartzea animatzen dituzte herritarrek, hitzordua 17:30ean da.

NORDIC WALKING

Herritarrek Olatu Talkan

Donostian ospatu zen aurreko asteburuan Olatu Talka jaialdia. Honen baitan, Miramonen Ipar martxa erakustaldia egin zen eta bertan parte hartu zuen 19 lagunez osatutako herritar taldeak. Kirol hau ezagutzera emateko erakustaldia izan zen eta honetan aritzeko argibideak eman ostean ibilbide bat osatu zuten.



Torredembarra, lasarteoriartuta

Kataluniako 10.000 biztanleko herriak euskaldunen bisita jaso zuen asteburuan

Denera 40 lagun joan ziren Euskal Herritik Kataluniara pasa den asteburuan. Ostiral gauean ailegatu ziren, gauerdian, zerbait hartu eta hurrengo egunerako dena antolatzen hasi ziren. Goizean goiz jaiki ziren larunbatean zikiroa prestatu behar zuten herritarrek, 7:30etan joan ziren Torredenbarrako Plaza d'Escorçadorren prestatu zuten gune nagusira, bazkarirako dena prest egon zedin. Bitartean, ekintza kultural sorta. Egun osoan zehar eguzkia eta beroa izan zituzten, toldo inprobisatuak eraiki zituzten eta garrantzitsuena, primeran pasa zuten.

TXINTXARRI

Ekitaldiak goizeko 10:00etan hasi ziren, Martin Iparragirrek dantzaturiko aurrekuarekin. Kataluniarrek *les diables* deitutako suzko ikuskizun bat eskaini zieten eta *casteller* bat ere egin zuten. Ostean, herrikirolen txanda izan zen. Torredembarra talde baten aurka lehiatzea zen asmoa, baina ezinezkoa izan zen eta Lasarte-Oriako bi taldeen artean erakustaldia egin zuten azkenean, sokatira, txingak, lokotxak etab. egin zituzten kataluniarrek euskal kirolak nolakoak diren ikusteko.

Torredembarra talde batek kontzertu txiki bat eman eta bazkariaren txanda etorri zen gero, zikiro janarena: "Jendea liluratu egin zen. Han beste era batera jaten dute arkumea eta harritura zeuden ikusi zutenarekin, ikusgarria egin zitzaie, egun guztia pasa zutelako Arzallus, Lasa eta koadrilak arkumea

egiten, jende asko agertu zen eta argazkiak atera zituzten, ez daude ohituta", adierazi du Juanjo Erauskin topaketaren antolatzaileetako batek.

Bazkaria bukatuta, Agirretxe, Mora, Urkola, Sito eta Garcia oholtzara igo ziren eta ordubetez jo zituzten euskal abestien bertsoak, jendea dantzan jarri zuten eta Kortaturen kanta asko ezagutzen zituztela azpimarratu du Erauskin. "Oso parte-hartzaile geunden bai hemengoak zein hangoak, ederra izan zen".

Bazkaloste luze baten ostean, Barcelona eta Athleticeko arteko Kopako finala ikustera joan ziren gehienak.

Hurrengo eguna, igandea, lasai hartu zuten lasarteoriartarrekin, hondartzan paseo bat eman, herria ikusi... "Torredembarra bitan banatuta dago, alde zaharra eta hondartzako aldea, arrantzaleena. Turistiko da, Tarragonatik gertu. Oraingoz ez dugu beste topaketarik aurreikusten, baina San Pedro festetara etorriko dira batzuk".



Kataluniako kulturarekin harremantzeko aukera izan zuten Torredembarra bidaiatu zuten 40 herritarrek.



Kontzertuak eta zikiro-jana izan ziren eguneko ekintza nagusiak, baina herri-kirolak, les diables, castellers-ak... Denetarik izan zen.

Atsobakarreko langileek bertan behera utzi dute greba

Aurreko asteetan bezala greba eta mobilizazioekin jarraitzeko asmoa zuten Atsobakar egoitzako langileek CLECE enpresari lan hitzarmena sinatzeko eskatuz. Hitzarmen hau sinatzeko langileek Foru Aldundiak finkatutako irizpideen arabera egitea eskatzen zioten enpresari.

Astearte eguerdian jakitera eman zuten, enpresarekin aurre-akordio batera iritsi dira eta hamar eguneko epea dute orain lan hitzarmena sinatzeko. Beraz, dena ondo bidean komitetik adierazi moduan, hitzarmena sinatuko dute.

Horrela izanda, greba bertan behera utzi zuten asteartean bertan eta normaltasunera bueltatu zen egoitza.



Atsobakarreko langileek erabiltzaile zein herritarren babesa jaso dute mobilizazioetan.

Kontutan izan behar da, astelehenean greba mugagabean zeudela herriko zahar egoitzako langileak ELA sindikatuak egindako deiari jarrituz.

ELA sindikatuak adierazi duenez, Gipuzkoako egoitzen %85ek hitzarmena lortu dute eta 17 inguru dira hau sinatzeko zain daudenak. Horieta kendu behar da Atsobakar.

Panamako gobernuko ordezkariak Lanbide Eskolan



Panamako ordezkariak Usurbilgo Lanbide eskolako kideekin.

Usurbilgo Lanbide Eskolak asteartean Panamako Ekonomia eta Lehiakortasun Idazkari Nagusiaren, Angel Esbrí-ren bisita jaso zuen.

Zubietan kokatuta dagoen Lanbide eskolatik adierazi zuten, Panaman Lanbide Heziketa Publikoa ez dago, beraz, Usurbilgo Lanbide Eskola bisitatu zuten Lanbide Heziketako Eskola Publiko baten errealitatea zein fun-

tzionamendua ezagutzeko. Panaman antzeko ereduak ezartzeko lankidetzak akordio bat adosteko ere balio izan zuen bisitak.

Egonaldia aberasgarria gertatu zitzaie Panamako ordezkariari. Miguel Angel Esbrí eta bere laguntzaileek Usurbilgo Lanbide Eskolaren instalazio zein kudeaketa sistemaren eraginkortasuna azpimarratu zuten.



Asteartean, haur ugari hurbildu zen Zabaletara eta eskulanak egin zituzten, hala nola, kaniseta margoketa.

Haurrek ederki gozatu dute

Teresa sorginaren etorrerarekin batera, Zabaletako jaietako asteburua ekintzez betea dator

Zabaleta auzoko Jaiak hasi ziren asteartean. Asteazkenean zehar etxeko txikiak ekintzak izan dira nagusi. Gaur Teresa sorgina iritsiko da auzora eta jai giroak eztanda egingo du. Hamaika ekintza antolatu dituzte Zabaleta auzoko lagunek heldu zein haurrentzat.

Teresa sorgina gaur datorren arren, asteartean hasi ziren jaietako ekintzak Zabaleta auzoan. Plazara adin guztietako umeak gerturatu ziren material birziklatuarekin eskulanak egitera eta kamisetak dotore apaintzera.

Asteazkenean ere, guraso eta haur ugari bildu zen Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko, zein Landaberriko LHko gaztetxoek antzerkiak ikustera. "Ur magikoa", "Mimoen zirkoa" edo "Euririk egiten ez duen lurraldea" izan ziren eskainitako lanak.

Osteazkenean, haurrentzako jokoak, herri-kirolak, eta

opari arrantza izan ziren. Atzo, berriz, haurren jolasak eta opariaren zozketa egin zituzten eta Lasarte-Oriako musika eskolako trikitilariak girotu zuten jaiak.

Jaien hasiera

Gaur, Teresa sorgina etorriko da Teresategitik. Aurretik antzerkiak gozatzeko beste aukera bat izango da.

Sorginaren etorrerarekin batera, pregoia, dantza herrikoia, Dinbi Banda batukada eta Jalgune elkartearen lagunen dantza saioa izango dira. Gauean, berriz, Kukuka antzerki eta dantza eskolako dantza garaikideaz

eta Itzartu taldearen erromeriaz gozatu da.

Larunbatean ekintza ugari izango dira. Goizean bigarren urtez, Zabaletako Sorgin-krosa antolatu dute 12:00etarako. Joxe Migel Aranzadiren omenezko mus eta tute txapelketek ez dute hutsik egingo eta 16:30etik aurrera, Bazpi txirrindularitza eskolako kideak alebin eta infantil mailako txirrindulari lasterketan lehiatuko dira. Haurrentzako puzgarri eta jokoak, bertso saioa eta gazte gaua ere izango dira.

Igandean, euskal dantza eta tortilla lehiaketa, Pepene baserriko idi eta zaldi arteko dema, ohiko proba mixtoa, herri bazkaria, dantza, kantua eta toka txapelketa antolatu dituzte.

Herriarrei jaietara hurbiltzeko eta igandean baserriarrez jantzita joateko gonbita egiten die auzoko Jai Batzordeak.



Antzerki eta haurrentzako joko eta herri-kirolak izan ziren asteazkenean.



Atzo arratsaldean Udal Musika Eskolako trikitilariak girotu zituzten jokoak.

Santi Arrozpideri 17 urteko zigorra

Maiatzaren 18an hasi zen Santi Arrozpideren aurkako epaiketa, 1986an Madrilen gertatutako atentatu batean parte hartzea leporatzen zioten.

Asteazkenean Auzitegi Nazionalak proba eta deklarazio guztiak aztertu ostean, bere ebazpena eskaini zuen.

Arrozpidek Madrilén Luis Antonio Buron Barba Estatuko fiskal orokor ohiaren kontrako atentatu egiteko agindua eman zuela egotzi eta 17 urteko kartzela zigorra ezarri dio. Fiskalak 14 urteko espetxe zigorra eskatu zuen epaiketa hasieran.

Abenduan aske

Herriko presoak Frantziar



Urtarrilean Arrozpideren atxiloketa ostean manifestazioa egin zen herrian.

betetako espetxe urteak kontutan hartuta atera zen kartzelatik abenduan. Erabakiak polemika handia sortu zuen, eta martxoan, Auzitegi Gorenak, baliogabetu egin zuen Plazaola eta Arrozpide aske uzteko Auzitegi Nazionalak abenduan hartu zuen erabakia.

Baina dagoeneko espetxean zen Arrozpide, 80. hamarkadako bi atentatuaren parte hartu izana leporatuta urtarrilean atxilotu baitzuten.

Auzi honetaz gain, 1987anartzelanon Juan Fructuoso Gomezen kontrako atentatuagatik ere auzipetuko dute.

Udal dantza eskolako aurrematrikula garaia ireki da

Lasarte-Oriako Udal Dantza Eskolak 2015-2016 ikasturteko aurrematrikulazio garaia ireki du.

Hastapeneko ikastaroa da eta dantzarako prest egoteko psikomotrizitatea, gorputzeko zatien kokapena (oinak, belaunak, aldaka, soina), inprobisazioa eta prestakuntza fisikoa landuko dira.

Haurrei bere sentiberatasuna garatzeko aukera ematen die. Ikastaro honetan kontzientzia, pertzepzioa eta kontrola ikasiko dituzte.

Ikastaroa urriaren 5ean hasiko da eta adinaren arabera hainbat ordutegi eskaintzen dira. Astelehenean eta asteazkenean, 17:30etik 18:15era 6 urteko taldea, 18:15etik 19:15era 8 urtekoa, 10 urteko taldea 19:15etik

20:15era eta helduena aldiz, 20:15etik 21:15era. Astearte eta ostegunetan, 17:30etik 18:30era 7 urteko taldea eta 9 urtekoa 18:30etik 19:30era 9 urte. Ostiralean 5 urteko, 10 urteko eta helduen taldea izango dira. Txikienek 17:30etik 18:30era dute saioa, 10 urtekoek 18:30etik 19:30era eta helduek 19:30etik 20:30era.

Kultura arloko teknikariak ohartarazi nahi dute, 9 nahiz 10 urteko taldeetan eta helduen taldeetan sartu nahi duten ikasleek, dantzari buruzko ezagutza izan beharko dutela, edo bestela, mailaketa-proba bat egingo zaie.

Aurrematrikula Manuel Lekuona kultur etxeko bigarren solairuan egingo da. Azken eguna ekainaren 12a da.

LABURRAK.-

Buruntzazpiko kadeteak bigarren Gipuzkoako taldekako erlojupekoan




Igandean Zumaian kadete mailako Gipuzkoako Txapelketaren Taldekako Erlojupekoa jokatu zen. 18,5 Km-ko ibilbidean 44,05km/h batz bestekoarekin, Donosti Berri taldea izan zen azkarrena. Bere atzetik sailkatu zen Lasarte-Oriako Buruntzazpi

Txirindulari eskola, 37 segundoetara eta hirugarren, Oriako Txirindulari Eskola 01:14 minutura. Bazpiko taldea Asier Esnalek, Iraitz Illaramendik, Luken Carbayadak eta Manex Altunak osatu zuten. Horretaz gain, Mattin eta Imano Iribarrek talde mixto batean hartu zuten parte.

Ander Huegun Lasarte-Oriako ATG torneoko txapeldunorde, binakako txapelketan

Huegun herriko tenislariak eta Iñigo Perez bikoteak 6-2 / 6-2 galdu zuten Mikel Aranabal eta Alex Maiztegiren aurka. Emaitzak bestelakorik dioen arren, berdintsu ibili ziren bi bikoteak tanto askotan. "Ondarretako txapelketa ta Erreterriakoa hasi dira aste honetan bertan, beraz orain ahalik eta urrutien iristen ahaleginduko naiz bi torneo horietan", adierazi du Ander Huegun Ostadar SKTko tenislariak.



LOKEko gimnastek emaitza onenak bakarka lortu dituzte Gipuzkoako txapelketan, Ibarren



Gipuzkoako txapelketa ospatu zen maiatzaren 23an Ibarren kiroldegian. Oraingo honetan, taldeka baino, bakarka eskuratu zituzten emaitza onenak LOKEko gimnastek. Senior A eta jubenil B kategorietan batez ere. Lehiakortasun handiko txapelketa izan zen Ibarrenkoa, maila altukoa, Maite Rueda entrenatzaileak azaldu duenez. Bakarka, Senior A mailan, Aizpea Arroyo lehena izan zen uztaiarekin, bederatzigarrena zintarekin eta sailkapen nagusian lehen postua erdietsi zuen. Garazi Gomezek bere aldetik, bigarren postua eskuratu zuen uztaiekin eta laugarren izan zen zintarekin. Sailkapen nagusian laugarren amaitu zuen Gomezek. Taldeka, senior A mailan laugarren izan ziren.

Jubenil A kategorian, taldeka mazekin laugarren izan ziren LOKEko neskek. Jubenil B mailan aldiz, Ainara Apeztegia lehena izan zen zintekin, bigarren mazekin eta sailkapen nagusian ere bigarren postuan amaitu zuen. Azkenik, kadete B mailan, uztaia eta baloiarekin zazpigarren izan zen herriko kluba.

Maite, Amaia eta Naiara entrenatzaileak oso harro daude euren neskek osatutako txapelketarekin.

KIROL AGENDA.-

KROSA

Larunbata 6

Zabaleta, Antonio Blas plaza, 12:00etan
II. Sorgin Krosa antolatuta dute auzokideek. Ibilbidea 6,6 kilometrokoa izango da. Izen-ematea 11:00etatik aurrera, plazan bertan, 3 eurotan.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 6

Herriko txapelketa, finalurrekoak.
Udal kiroldegia, 17:15ean
Txindoki - Insausti
Udal kiroldegia, 18:15ean
Bar El Punto - Izkiña

MENDI LASTERKETAK

Igandea 7

Ereñozu, 10:30ean
Ereñozuko 5. mendi-lasterketan parte hartuko dute hainbat herritarrek. 12 km-ko ibilbidea da 832 m-ko desnibel metatuarekin.

PILOTA

Ostirala 5

Ibaeta, Donostia, 19:30ean
Intzako Aritz Solanok Azkoitiako Unanueren aurka neurtuko ditu indarrak eskuz banaka 4' terdian, Udaberri txapelketan.

PIRAGUISMOA.-

Maialen Chourraut Europako txapeldun, Leipzigen

Lasarteoriatarra onena izan zen igandean Markkleebergeko kanalean, Funk alemaniarra eta Kudejova txekiarraren aurretik



Maialen Chourraut ahalegin betean Markkleebergeko kanalean, asteburuan. Arg: RFEP

Kirolari lasarteoriatar bat aupatu zen igandean Leipzigecko (Alemania) podiumeko koska gorenera. Kontinenteko ur bizietako slalom txapelduna da Maialen Chourraut, Klean. Herritarrak urrea jantzi zuen Markkleebergeko kanalean, 108.09ko denbora eginda. Bigarren Ricarda Funk alemaniarra izan zen 108.52ko markarekin eta hirugarren Kudejova txekiarra sailkatu zen, 109.30ekin.

JON ALTUNA EGITEGI

Lortutakoaz gozatzea tokatzen zaio orain Chourrauti, baina Rio 2016rako bidean buru-belarri sartuta dago jadanik. Ilusioa eta lana, ez dago beste sekreturik. Hona txapela jantzi eta bihamunean esan zizkigunak.

Nola esnatzen da Europako txapeldun bat?

Ba nekatuta, atzo goizeko 2:30etan ailegatu ginen Alemaniatarik, pentsa. Paliza hartuta gaude.

Halako sariak merezi dute orde neurri honetako paliza, ezta? Dударik gabe.

Hotzean, ze irakurketa egiten duzu Europako Txapelketa honen inguruan. Ze esanahi du zuretzat?

Garrantzitsua zen batez ere finalera sartzeko. Rioko selezio probetara begira bonifikazioa lortzeko. Zirkuitoa oso-oso exigentea zen, tentsio handia egon zen txapelketa osoan zehar. Klasifikatoretan sistema berezi bat dago gainera eta kortea nahiko zorrotza geratzen zen, fase hori pasatzea zen garrantzitsuena.

Europar 15 neska daude irabazi dezaketenak eta lehia handia egon zen horien artean sartzeko.

Klasifikatoretan ez nuen asko arriskatu nahi izan, finalera sartu nahi bainuen eta halakoetan akats batek kondena zaitzake... Finala zen benetan inporta zitzaidana, bonifikazio bat lortzeko datoren urteko Rioko selezio probetara begira. Jaitsiera hasieran bazegoen trenzoi bat ez zitzaidana askorik gustatzen, hori salbatzea lortu nuen, ondo atera nintzen hortik eta aurrera jarraitu nuen, tokeak ez egiten saiatu nintzen eta horrekin lortu nuen finalera sartzeko eta hortik aurrera, gozatzea izan zen egiteko bakarra.

Finala bera ere ez zen erraza izan, segundu erdi baino gutxiagotatik garaitu zenuen Ricarda Funk asteburu osoan aurretik izan zenuen emakumea.

Oso zaila zegoen. Ricarda Funk izan zen manga guztietan onena, dudarik gabe, baina finalean pixka bat huts egin zuen eta horri esker irabazi nuen, ez nuen inondik espero. Funk etxean zegoen, zaleen aurrean, bere kanalean.

Eta hor atera zuen Maialenek irabazteko grina, gosea... Nahi duzun bezala deitu.

Finalean atakatea beste erremediorik ez dago, beste mangetan arriskatzea arriskutsua izan daiteke behar baino gehiago arriskatzea, baina finalean... Topera.

Disfrutatu egin nuen, izugarri gainera. Egia da toke txiki bat eduki nuela eta denbora pixka bat galdu nuela jaitsieran... Baina iritsi eta besteak helmugan sartu ahala ni baino denbora mantsoagoak egiten ari zirela ikustean... Ez nuen espero... Europako Txapeldun nintzen. Opari polita, oso polita izan zen, irabaztea asko gustatzen zait, badakizu.

Zein izango dira zure hurrengo erronkak?

Munduko Kopako probak, bertan ere Rioko Joko Olimpikoetarako bonifikazioak egongo direlako jokoan. Datorren astean Londresera noa, igandean, Munduko Txapelketei begira entrenatzen. Astebete Seun pasako dugu ondoren eta Krakovia eta Litovskiko Munduko Kopako probak lehiatuko ditut.

Erdietsi berri duzun kontinente mailako lehen txapel hau nori eskaintzen diozu? Laguntzen nauten guztiei, eta asko dira. Jende ugari dago nire atzean. Familia, Xabi, Ane, Raquel, lagunak, jende asko animatzen, laguntzen, nire karreraren parte hartzen. Oso eskertuta nago. Haiei zor diet lortutakoa.

Agenda

Asteazkena 10, 19:30ean, Manuel Lekuona



Palestina gertutik

Palestinaren lagunek, Lasarte-Oriako pertsona ezberdinek parte hartu duten dokumental laburraren aurkezpena. Dokumental honek, Palestinarekiko elkartasuna adieraztea eta Israelek aurrera daraman apartheid politika salatzea du helburu. Ondoren, "Y sin embargo Al Quds" dokumentala proiektatuko da (Unai Aranzadi, 30'), non Jerusalemeko gaur egungo egoera ezagutzeko aukera izango den.

tezplana eskainiko dute. 'Zirkoko misterio iluna' lana Zubietako LH4, 5 eta 6 mailakoek.

Astearte 9, 19:00etan

'Mimo', 'Edunezuri eta 7 ipotxak', 'Artxain gezurtia', 'Bahiketarrak' eta 'mimoen zirkoa' lanak.

Osteguna 11, 18:00etan

'Ur magikoa', 'Piratak eta Altxorra', 'Itsasoaren zaindariak', 'Euririk egiten ez duen lurraldea' eta 'abenturaz blai' lanak aurkeztuko dira.

21:00etan, 'Pentagrama' gazteen antzezplana.

Jaiak

HERRIKO HAINBAT TABERNA

Larunbata 6, 17:00etatik aurrera

Abend, Buenetxea, Elurtza, Garaa, Hirualdetak, Patrizio, Uxoak eta Yolanda tabernetan Inauteri jaiak. Mozorrotuta azaltzera animatzen dituzte herritarrak. Cava koktel eta pintxo edota bermut berezi eta pintxo aukeran. 17:00etatik 21:00etara Heineken festa, opariak, porra eta zozketak izango dira.

Dantza

OKENDO PLAZA

Astearte eta ostegun, 20:00etan

Sorgin Dantzako entseguak egingo dira hilabeteko astearte eta ostegunetan. Saio irekiak dira eta nahi duenak parte hartu ahal izango du. Eguraldi onarekin Okendon egingo dira eta bes-tela, Garaikoetxea eraikinean.

Erakusketa

ANTONIO MERCERO ARETOA

Ekainaren 5a arte

Brancussiko ikasleen margolan eta arte-lanen erakusketa ikusgai.

Lasarte-Oria

Zabaletako jaiak

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 5

18:00etan, Antzerkia eta ondoren, txokolata.

19:00etan, Teresa sorginaren jaitziera txalapartarekin. Jarraian, pregoia

19:05ean, dantza herrikoa (sorgin dantza)

19:15ean, Dinbi Banda batukada.

19:30ean, Jalguneko lagunaren emanaldia.

20:00etan, Itzarturekin erromeria.

22:00etan, Kukuka antzerki eta dantza eskolako dantza garaikide taldea.

23:00etan, Itzarturekin erromeria jarraipena

Larunbata 6

9:00etan, diana

12:00etan, Zabaletako 2. sorgin-krosa

12:00etan, VIII. Joxe Migel Aranzadi eskoba txapelketa.

15:30ean, VIII. Joxe Migel Aranzadi mus txapelketa.

16:30ean, txirrindulari lasterketak.

18:15ean, Euskararen taupadak (Irriren lagunak puzgarriak)

19:30ean, japoniar bonbak

20:00etan, bertso saioa: Ane Labaka, Eli Pagola, Jexux Mari Irazu eta Iker Zubeldia. Gai jartzaile Unai Muñoz.

00:00-04:00, Gazte rock gaua: Gora-galeak, Auskan eta talde sorpresa.

Igandea 7

Denok baserritarrez jantzita

09:00etan, diana eta auzo garbiketa txapelketa.

11:00etan, Kukuka antzerki eta dantza

eskolako euskal dantza saioa.

11:00etan, Tortilla lehiaketa.

12:15ean, Pepe Enea baserriko Imanolen zaldia eta Inazioaren idiaren arteko dema.

13:15ean, Proba mixto nagusia. Aimar Irigoien eta Urtzi Telleria.

14:30ean, Herri bazkaria.

17:30ean, Kantu festa "Xumela" koruarekin.

18:00etan, Egan taldearekin erromeria.

18:30ean, Toka txapelketa.

20:30ean, Teresa sorginari agurra eta azken traka.

Kukuka Antzerki eta Dantza Astea

MANUEL LEKUONA

Astelehena 8, 19:00etan

'Mutilik ez dago ala?' LH6. mailakoan an-

Herritarren txokoa

Lasartetik Esloveniara!!

Lasarte taldea, aurten ere, udako bidaia prestatzen ari da. Bisitatuko dituzten lekuak: Bled, Maribor, Ljubljana, Postjonako kobazuloak, Istria... Interesa duzuenok deitu telefono honetara: 661 41 78 53 Plaza mugatuak.

Oriatarren bazkaria

Karmengo Amaren egunean, uztailaren 16an, Oriatarren bazkaria antolatu dute El Jardin jatetxean. Aurten Karmengo Amaren kaparen 75. urteurrena ospatuko dute eta On Ramon Uribetxeberria apai-zari omenaldi txikia egingo zaio urte hauetan egindako zerbitzua-rengatik. Bazkariak gozatu nahi duten herritarrek jatetxean bertan eman behar dute izena. Menua 30 euro dira eta haurrentzako bi menu daude, bata 8 eurokoa eta bestea 12 eurokoa.

Santa Ana pintxoak

Aterpeak Santa Ana egunean, uztailak 26, Santa Ana pintxoak egitas-moa antolatu nahi du iaz bezala. Honetan parte hartu nahi duten tabernek harremanetan jarri beharko dute Aterpeako kideekin 637 95 50 30 telefonoan edota itziarirurzun@hotmail.com bidez.

Sorgin dantza zapiak

Sorgin dantzako zapiak salgai izango dira entseguetan, Jalgin edota Ttakunen. Kotoizko zapiak 9 euroko prezioan, akrilikoak 4 eurotan.

Ostadarren Giroko porra

Giroko porrako sariak eta urdaiaz-pikoak banatuko dira gaur 19:00etan Avenidan. Saridunak: Ese Perdigo, Albersan, Patinete, Kriston Kopetta II, Iara, Oskila, Euskal Presoak Euskal Herrira (249 eta 555), La Madrileña eta Iparra.

Sarean


Hitziki 0-6 urte arteko haurrentzat hiztegi jolasa

Hitziki Euskarazko hiztegia ikasteko jolas berria da eta 0 eta 6 urte bitarteko haurrentzat diseinatuta dago ONOFF garatzaileen eskutik.

Haurrentzako pentsatuta egon arren, euskara ikasten ari diren helduentzat ere izan daiteke tresna baliagarria euren hiztegia aberasteko. Glenn Doman psikoterapeuta estatubatuarren adimen-bitetan oinarrituta dago jolasa.

Euskara ikasteko berariaz hautatutako 189 hitz eta 8 gaiz osatuta dago. Gaia aukeratuta hainbat irudiz osatutako pantailak ikus daitezke eta hauetan lotu beharko dira irudiak dagokion izena edota hitzarekin. Jokoaren bigarren fasean, hitzak ikasi diren ikusteko, beste joko mota bat planteatzen zaio umeari. Garatzaileek irakurtzen ikasteko erabili ohi diren hizki motak erabili direla azpimarratzen dute.

Android eta Iphonentzat eskuragarri dago aplikazioa doan eta erabiltzaileen kritika onak jaso ditu.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

Joxan Rodriguez Musikoa

"Jendeak ez du Jainkoa ezagutzen"

Hatikan taldeak "Zu zara jauna" diskoa grabatu zuen Manchesterren

Joxan Rodriguez jaiotzez lasarteoritarra dugu, "Okendon jaioa". Musikaria eta Hernaniko eliza ebanjelistako kidea. Resonance proiektuari esker, bizitzako bi eremu hauek uztartu eta Hatikan taldea sortu du elizako beste kide batzuekin. Hitza eta Jainkoa ezagutzera eman nahi dute. Horretarako kalean edo jaialdi ezberdinetan jotzen dute, Okendo plazan ere izan dira. Disko bat ere grabatu dute.

NEREA EIZAGIRRE

Nola otu zitzaizuen Hatikan taldea sortzea?

Hatikan taldea proiektu berezia izan zen. Badago misiolari talde bat WEC izena duena eta honen barruan Resonance proiektua dago. Hauek herri txikietara edo hizkuntza gutxituak dauden herrietara doaz eta kultur ikerketa bat egiten dute. Gurean musika, dantza, bertsoak eta hitza osatzeko erabiltzen diren elementuak izan ziren.

Hernanira etorri ziren eta ikastaro bat antolatu genuen Musika eskolan. Bertara Gipuzkoako elizetako jendea etorri zen, musikariak gehienak eta tailer horretan 13 abesti berri sortu ziren.

Proiektu honetan parte hartu dugunok sortu genuen Hatikan.

Nondik dator izena?

Izena jartzeko ez ginen ados jartzen eta hitz egiten ari ginela, Hatikan atera zen. "Zergatik? Hatikan" eta horrela geratu da.

Zenbat talde kide zarete?

Zazpi gara, soinu teknikariarekin zortzi eta batzuetan beste bi kide batzen zaizkigu bibolin jolea Jone Bartolomeu besaindarrareta eta txeloa Mada legazpiarra. Inaxio Intxaustik jotzen ditu gitarra, gitarra elektrikoa, txalaparta nirekin, txistua, txirula, harmonika. Orain hasi da bere alaba Sarai bibolina jotzen. Igor bajua, Unai bateria eta perkusioa eta abeslariak Ainara eta Rebeka, Javi Rebekaren aita gitarra jotzen eta ni teklatuan, akordeoian eta txalaparta jotzen.

Guk ez dugu kasualitateetan sinesten baina justu denak Hernaniko elizakoak gara. Ikastaroan ez ginen guztiak hernaniarrak. Baina ez dakigu nola, ze ez dugu inor baztertu nahi, Hernanikoak geratu gara bakarrik.

Tailer hori Zu zara jauna izenekoa disko bihurtu zen...

Aipatutako proiektu horren zuzendaria ingelesa da, Manchesterren bizi da eta beste elizako kide batekin hitz egin zuen korearra. Hau soinu irakaslea da unibertsitatean. Gure proiektua gustatu zitzaion eta abestiak gra-

batzeko prest zegoela esan zuen. "Zatozte hona eta dohai-nik grabatuko dizuet". Guretzat esfortzu handia zen. Diru polita jarri behar genuen, baina grabaketa batek hemen ere diru piloa balio du.

Animatu ginen eta lanean hasi ginen abesti horiekin, ze gordinak ziren. Beraz, moldaketak etab. egin behar izan genituen. Bigarren eskuko mac bat erosi, plug-in bat sartu eta hor egon ginen buru belarri grabazioak eta probak egiten. Gauza guztiak prestatu eta Manchesterrera joan ginen.

Zergatik du izen hori diskak?

Abesti gehienetan agertzen da hitz hori, jauna. Oso garrantzitsua da guretzat, bera jauna denean gure elkarbizitza erabat aberatsa da.

Guretzat ez dago hoberik, bera jauna bada eta nik kasu egiten badiot, nire ingurukoek beldurrik ez dute izango. Zeren nik ez baitzuzt kalterik egingo, maite zaitudalako. Eta nahiz eta zuk niri huts egin, barkatuko dizut maite zaitudalako. Ez dago hoberik, beste mundu bat da.

Nolako esperientzia izan zen diska grabatzea?

Manchesterren bederatzi egun egin genituen eta sei egunetan bederatzi abestiak grabatu. Maratoia izan zen.

Talde osoa ez ginen joan. Bost joan ginen. Bidaian, oportetara zoazenean bezala, taldean bazoaz ba juerga bat da.

Han pasada bat izan zen. Pertsona horiek ezagutzea eta dena nola ematen duten ikustea, daukaten guztia. Oso berezia eta aberasgarria izan da bidaia.

WEC-ek duen gune batera joan ginen. Han egiten genuen bizitza eta bertan grabatzen genuen.

Haiek arduratzen ziren guztiaz, gosariak, bazkariak,... Gainera, gure alde otoi-tza egiten zuten, guk abestu ahal izateko eta behar genuena emateko. Maitasunez inguratuak geunden. Horrela lan egitea oso erraza eta aberatsa da.

Lan gogorra zen izan, egun osoa pasa behar zenuen han sartuta, grabatzen eta begiratzen.

Teknikoki eta musikalki ere,



Hatikan taldea eta Manchesterreko lagunak grabaketako atsedean batean. Joxan, beheko ilaran berdez jantzita.

J. RODRIGUEZ

orain arte guk ez genuen horrelako ezer egin.

Gainera, Hyunkook soinu teknikariak nahasketak egin eta masterra egiterakoan ez zen oso konforme geratu eta bere aitari bidali zion Hego Korea. Hara bidali zituen abestiak han masterizatu eta Manchesterrera bueltan etorri ziren.

Euskal doinuak eta instrumentuak erabili dituzue. Baina hara eraman al zenituzten instrumentuak?

Ez, aipatu legez. Gauza batzuk grabatu genituen.

Eta nik esate baterako akordeoia eraman behar nuen, baina kobratu nahi zidaten eta bertan egongo zela espero genuen. Beraiek bat lortzen saiatuko zirela esan ziguten eta horrela izan zen. Hohner handi eta zahar-zahar bat. Eta horrekin grabatu nuen abesti bat.

Nire urtebetetzea bertan izan zen eta nire arreba Manchesterreko eliza batean dago lanean eta hara joan ginen. Old Trafford ondoan dago eliza eta bertan ospatu genuen.

Hara eraman nuen akordeoia festa animatzeko eta abesteko. Eta bertan puskatu zen, zerbait izorratu zitzaion barruan eta "ostrak, orain nola egingo dugu".

Bertan etxe hartan, batek akordeoi bat zeukan ganbaran. Hura jaitziko zidala esan zidan eta orain etxean daukat. Oparitu zidan, Kazakhaneko akordeoia.

Eta euskarak leku garrantzitsua du...

Herri bakoitzak du hizkuntza bat eta gure hizkuntza da euskara.

Nik nahi nuen guztia euskaraz izatea, baina eztabaida sortu zen. Ulertu behar dugu gure herrian euskaraz ez dakien jendea dagoela eta

"Euskaraz hitz egiten duzuenean bihotzetara hitz egiten duzu, ez buruari. Eta Jainkoak hitz egiten digu bihotzera, ez burura"

horiek ere badute eskubidea entzuteko.

Haiek esaten ziguten, euskaraz hitz egiten duzuenean bihotzetara egiten duzula, ez buruari eta jainkoak hitz egiten digu bihotzetara, ez burura. Gauza da bihotzez egitea, maitasunez egitea. Maitasunik gabe ez dago ezer.

Testuak ebanjelioko zatiak dira bakarrik edo eguneroko bizitzak ere lekua izan du?

Gehienak salmoak ziren. Letrak sortzen ez gara oso trebeak eta ikastaro batean erabiltzeko aproposenak ziren. Gainera, taldeka egin genuen lan. Hiruko edo lauakoak eta talde bakoitzak bere abestia egin zuen. Bakoitzak erabakitzen zuen nondik eta nola osatu abestia eta letra. Batzuk bizitzaz hitz egiten dute.

Salmoak abestiak dira, horietatik zati batzuk hartu eta esan nahi genuena esanten saiatu ginen.

Gainera, salmoak dira jainkoari esateko ze ona den berarekin bizitzea, ze ona den bera gurekin eta zer den bera guretzat.

Abesti hauek zuen kultoetan abesten al dituzue?

Momentuz diskoa egiteko bakarrik balio izan dute abestiek, baina hauek kultuetan sartzen hasi behar gara, batzuetan ez da erraza.

Gaur egun gure elizan erdaraz abesten dugu eta euskaratutako abestiak ere badaude.

Jainkoak gure bihotzetan euskara jarri du eta gure oinarria, sustraia da eta nahi dugu euskaldun jendeak ere bera zein den ezagutzea. Ez erakutsi digutena.

Euskal Herriak ez daki nolakoa den Jainkoa eta nola maite duen Jainkoak Euskal Herria eta hori nahi dugu zabaldu. Gure abestiekin Jainkoak maite gaituela esan nahi dugu, bera maitasuna da eta berak "elkar maitatu" esaten digu.

Eta proiektu berririk ba al duzue?

Hor gabiltza. Pentsatzen dut ez ditugula hainbeste salmo erabiliko. Baina badira salmoak oso adierazgarriak eta zati batzuk oso potenteak dira. Testuinguruan kokatu daitezke, gure garaira ekarri, egokitu eta abestu.

Baina orokorrean Jainko ezezagun horri buruz izango da proiektu berria. Zeren eta jendeak ez du ezagutzen. Kontatu dietena dakite bakarrik, zuzen ez dakite ezer.

Proiektu berriarekin ere diskoa grabatzeko asmoa dugu. Euskaraz ez dagoelako ia ezer. Gaur egun Iruñean dauden bi lagunek egin zuten, Gerard eta Jane estatubatuarra eta kanadiarra dira eta haiek egin zuten disko bat euskaraz. Bestela ez dago beste ezer.

Lan handia dago eta taldea gogoz dago. Lan egin behar dugu, gure herria maite dugu eta maitasunarekin, ez da ezer kostatzen.